

2012 · UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Geografia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



EUSKAMPUS
Nazioarteko Bikaintasun Campus
Campus de Excelencia Internacional

en la red de



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da, honela banatua:

- 1. Ariketa praktikoa:** 4 puntu.
Kontuan hartuko da mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea.
- 2. Gai baten garapena:** 4 puntu.
Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.
- 3. Kontzeptu geografikoen definizioa:** 2 puntu (0,5 puntu bakoitzak).
Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke. Kontzeptuak argi eta zehatz definitzea hartuko da kontuan.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.


No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

La valoración total de la prueba será de 10 puntos que se repartirán del siguiente modo:

- 1. Prueba práctica:** 4 puntos
Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.
- 2. Desarrollo de un tema:** 4 puntos
Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.
- 3. Definición de conceptos geográficos:** 2 puntos (0,5 puntos cada uno).
Deben ser definidos en una extensión que no sobrepase las 5 líneas.
Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.

A AUKERA

1. Espainiako nekazaritza-paisaien maparen iruzkina (4 puntu)



2. Biztanleriaren banaketa eta lurraldez lurraldeko desorekak Euskal Autonomia Erkidegoan (4 puntu)

3. Kontzeptu hauen definizioa (gehienez ere, bakoitzeko 5 lerro):

- Arro sedimentarioa (0,5 puntu)
- Erromako Ituna (0,5 puntu)
- Zabalgunea (0,5 puntu)
- Nekazaritza estentsiboa (0,5 puntu)

1. Espainiako errepide-sarearen maparen iruzkina. (4 puntu)



2. Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde atlantikoan (4 puntu)

3. Kontzeptu hauen definizioa (gehienez ere, bakoitzeko 5 lerro):

- Landaredi potentziala (0,5 puntu)
- Modelatu karstikoa (0,5 puntu)
- Tertziarizazioa (0,5 puntu)
- Metropoli-eremua (0,5 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

Irizpide espezifikoak

A AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Kontuan hartuko da nekazaritza-paisaia bakoitzaren kokapena.

Nekazaritza-paisaia bakoitzarekiko (Espainia hezeko paisaia; barnealdeko paisaia; paisaia mediterraneo; Kanarietako paisaia; mendi-paisaia) honako ezaugarri hauek azpimarratu beharko dira:

- Ingurune fisikoarekin duen erlazioa.
- Nekazaritza-egitura: jendeztatzea; nekazaritza-ustiapena.
- Lurzoruen erabilera.
- Laborantza garrantzitsuenak: lehorrekia/ureztatzekoa bikoiztasuna.
- Abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

Kontuan hartu beharreko aldeak:

- Herrialde oso populatuak baina barne-desoreka handikoak.
- Bi isurialdeen arteko diferentziak eta desorekak (itsasaldeko herrialdeak eta Araba).
- Populazio-dentsitate handiko eremuak (hiriguneak eta industriguneak), eta dentsitate txikiko guneak (landa-eremuak).
- Herrialdeen arteko diferentziak (Bizkaia: Bilbo Handian dentsitaterik handiena; Gipuzkoa: dentsitate handienak Donostia eskualdean; populazio-banaketa orekatuagoa; Araba: herrialdeko populazioaren parte handia hiriburuan dago).
- Erliebearekiko banaketa eta jarduera ekonomikoen kokapena.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Arro sedimentarioa: hondoratze-eremua, non higaduraren ondorioz material sedimentarioen pilaketa gertatzen baita.

Erromako Ituna: 1957an Belgikak, Herbehereek, Luxenburgok, Frantziak, Alemaniako Errepublika Federalak eta Italiak sinatutako akordia, CEE/EEE (Europako Erkidego Ekonomikoa) eta EURATOM (Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa) sortzeko.

Zabalgunea: Burgesiak eskatu eta zoru urbanizatu egokia ez duten hirien zabalkundeari erantzuna emateko sortutako hiri-plangintza.

Nekazaritza estentsiboa: tokian tokiko baliabide naturaletan oinarrituta dagoen nekazaritza- sistema eta hektareako errendimendu baxua ematen duena.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4

Kontuan hartu beharreko aldeak:

- Mapan bereizi bi sarea: autobideek eta autobiek osatzen duten ahalmen handiko sarea, eta estatuko ohiko errepideen sarea.
- XVIII. mendetik datorren sarearen egitura erradiala; 1960ko hamarkadan aurreko sarearen eguneratzearekin finkatu zen eredia, gaur egun arte irauten duen eredia: Madriletik ateratzen dira Estatuko autobia nagusiak.
- Azken hamarkadetako aldaketak: zeharkako sarea agertzea, iparraldetik hegoalderako eta ekialdetik mendebalderako autobien eraikuntza (Ebroko ardatza, Mediterraneokoa, “de la Plata” deritzon autobia, Kantauri aldekoa (osatu gabea).
- Bide-sareen maila bat osatzeko joera.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4

Kontuan hartuko dira:

- Isurialde atlantikoaren eta mediterraneoaren arteko banalerrotik iparraldera kokatutako lurri dagokien paisaia da, erliebe malkartsu batean kokatua, klima ozeanikoa duena eta zoru-kalitate kaskarra.
- Populazio sakabanatua baserrietan.
- Nagusitzen den nekazaritza-ustiapena: baserria.
- Produkzio-sistema intentsiboa.
- Zoruaren erabilera handia
- Abeltzaintza espezializazioa: idi/behi- eta ardi-aziendak.
- Hazkunde azkarra duten zuhaitz-espezieen baso-ustiapena.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Landaredi potentziala: gizakiaren esku-hartzerik gabe toki batean berez, era natural batean, hazi beharko lukeen landaredia.

Modelatu karstikoa: uraren eraginez eta CO₂-aren eraginez kareharrizko arroken desgite-prozesuen ondorioz sortzen den modelatua.

Tertziarizazioa: jarduera ekonomikoaren barnean zerbitzu-sektore edo hirugarren sektorearen hazkunde nabarmena dakarren eraldaketa ekonomiko eta soziala; hirugarren sektorea, hala, lanpostu gehien sortzen dituen eta BPGari (barne-produktu gordinari) gehien ematen dion sektorea izatera pasatzen da.

Metropoli-ingurua: hiri nagusi eta dinamiko batek eta haren eraginpean era osagarrian hazten diren inguruko beste batzuek osatzen duten multzoa.